

LAN BATZORDE IREKIAK			
TALDEA	ONGIZATE BATZORDEA		
IRAUPENA	ORDUBETE ETA ERDI	EGUNA	2018-11-14
GAIA	MAKILARI eta EUSKARALDIA	DEIALDIA	20:30
PARTE HARTZAILEAK			
Aloña Murua	Eresti Oiarbide	Leire Murua	
Aratz Igartzabal	Ander Yurrita	Marian Bidegain	
Nekane Agirre	Iñigo Igartzabal		
ERABAKIAK			
GAIA	EKINTZAK		
MAKILARI	<p>Aurtengoa 30.a izango da, eta gai zentrala Euskaraldia izatea erabaki dugu. Hala, portadan igandean aterako dugun argazkia jarriko dugu; eta, horrez gain, Euskaraldiari buruzko erreportaje bat ere egingo dugu. Diseinuari dagokionez, Gattikenekoekin hitz egingo dugu zenbait gauza aldatzeko edo beste modu batean egiteko (aurkibidea, marjenak, portadako izenburua...).</p> <p>lazko aleari begira, atal hauek aipatu genituen:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Di-da (Aratz) • Eneritz Gorrotxategi (zerbait egiteko prest dago) • Eusebio Igartzabal (urtero egin ohi du eta ea aurten ere zerbait egiten duen) • Gabiria jaioterri (Aloña eta Marian) • Gazte taldea (Aratz) • Agirin! Berdintasun taldea (Eresti) • Euskaraldia (Iñigo eta Eresti) • Iban Maiz (zerbait egingo duela esan du) • Kontraportadarako eta aldizkariaren erdirako argazkia (Ander) • Sukalde txokoa (Leire) • Gabiriar berriak (Aratz) • Berriak labur eta Makilakixki (Aimar) • Eskola (Ane Miren) • Argazki jolasa (Mikel Asurabarrena) • Osinalde elkartearen historia (Marian/aratz) <p style="text-align: center;">LAN GUZTIAK URTARRILAREN 27rako ENTREGATU BEHAR DIRA!!!</p>		
EUSKARALDIA	<ul style="list-style-type: none"> • <u>TXAPA BANAKETA</u> <p>Azaroaren 16an, 19:30/21:00 bitartean Azaroaren 18an, 12:30/14:00 bitartean Txapekin batera, aholku sorta bat banatuko dugu Errezil sagar lehiaketa eta baserritarren azoka dela aprobetxatuz, igande honetan 14:00etan argazkia aterako dugu Ostatu aurrean Euskaraldian izena eman dugun gabiriarrok</p>		

	<p>Ostiralean eta igandean irudi batzuk grabatuko ditugu, datorren asterako bideo bat ateratzeko. Gattikeneoek egingo dute bideo muntaia; bideoa Euskaraldia hasi baino lehen zabaltzea da asmoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>KOMERTZIOETARA BUELTA</u> <p>Oraindik denok ez gara pasatu herriko komertzioetatik, baina datorren astea baino lehen pasatuko gara eta pegatinak eskatu dituztenei ostirala baino lehen emango dizkiegu</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>EUSKARAREN EGUNA</u> <p>Aurten astelehena tokatzen da; beraz, igandean ospatuko dugu. Iaz bezala, aurten ere Ostatun bertso-bazkaria egingo dugu herriko bertsolariekin. Juan Karlosekin hitz egin dugu, eta 20 euroan zerbait jarriko duela esan digu</p>
ORGANO KONTZERTUA	Abenduaren 14an izango da, 19:00etan
ZENBAIT IDEIA	<ul style="list-style-type: none"> • Denbora izeneko leku bat. Joseba Iztuetaren emanaldia. Kirgizistanera egindako bidaian Lenin eta Khan Tengri mendiak igo zituen, eta bertan bizi izandako sentazioak eta gogoetak eskaintzen ditu irudien eta zuzeneko musikaren laguntzaz • Barretartia. Hitzaldiak, ikastaroak, ikuskizunak... Informazio gehiago www.barretartia.eus webgunean • Moko zorrotza. Antzezlanak. Informazio gehiago www.txalo.com/movie/moko-zorrotza/?lang=eu • Gure Zirkua
LEHENGO JOLASAK	Guraso elkarteko bileran komentatuko dugu lehengo jolasak umeekin lantzeko asmoa daukagula, eta ea, ba, bakarren bat prest dagoen parte hartzeko

Hurrengo bilera

URTARRILAREN 30ean,

20:30ean